

OFRANEH

Honduraseko Organización Fraternal Negra OFRANEH




Kerlin Teresa Colón Martínez eta Carmen Isabel Álvarez Sabio

Garífuna herriaren eskubide eta lurraren defendatzaileak



OFRANEH erakundea Honduraseko garifuna herriaren ordezkaria da. Gure eskubideen alde, eta gure lur eta komunitateen alde, lanean diharduen erakunde bakarra dugu gaur egun. Oso kriminalizatuta gaude, kartzelatu egiten gaituzte, jazarri egiten gaituzte... Hortaz, laguntza judiziala ere eskaintzen digute. Beste zenbait herri indigenekin ere lan egiten dugu, nazio mailan beste gizarte erakundeekin harreman eta lan sare sendoa sortzeko beharra antzeman dugulako.

Gure herrialdean 9 herri indigena desberdinek egiten dugu topo eta gu, garifunok, horietako bat gara. Gure arbasoak San Vicenten bizi ohi ziren, eta Britainiar Inperioak baztertu egin zituen bertan piztutako iraultzen ondorioz. Datu historikoen arabera, 5200 bat pertsonak alde egin behar izan zuten, gizon eta emakume. Haiekin batera, hainbat arawacok ere alde egin zuten, haien azala beltzez tindatu zutenak garifunak balira bezala ihes egiteko, tirokatzeen beldur ziren haiek ere. Ihesean zihoazen guzti horietatik, soilik 250 heldu ziren Roatán uhartera. 1797. urteko




pirilaren izan, Punta Gorda inguruan ezartzea lortu zuten eta bertan kokoa, azukre kaña eta juka ekoiztea lortu zuten, San Vicenten egiten zuten antzera. Bertan hazten joan ziren eta biztanleria kopurua ere gora egin zuen, kostalderantz hedatuz eta komunitate berriak sortuz. Hortik aurrera, etengabeko gizarte-inklusio borroka bizi dugu Honduraseko estatuaren kontra. Garifunak independentziaren alde ere lehiatzen gara, gure herrialdea dominazio espainolaren kateetatik behin betiko askatzeko, alegia.


Hondurasen bizi garen 47 komunitate garifunak iparraldeko kostaldean gaude kokatuta, hondartza inguruetan batik bat. Izan ere, soilik Vallecito Limon izeneko komunitatea kokatzen da kostaldetik urrun, ordu bete ingurura hain zuzen. Berreskuratu behar izan genuen komunitatea dugu hau, enpresa pribatuen eta narkoen eskuetan baitzegoen bere osotasunean. Kanpamendu bat altxatu genuen eta orain, zorionez, birgaitzen ari da berriro ere.

Atzerritarrek, enpresa transnazionalak eta gobernuek asko gutiziatzen dute itsasoa eta hortik doaz gaur egun bizi ditugun arazo nagusien nondik norakoak. Gure lurretatik kanporatu nahi gaituzte berriro ere, guk geuk sortu eta eraiki genituen lurrak, gure aitona-amonek antzina hazi zuten lur horietatik bertatik. Guk ez dugu inolako zorrik Estatu edo gobernuarekin. Lur hauek, Hondurasen bizi garen 47 komunitate garifunena alegia, ez dira Estatuaren emari edota opari baten ondorio izan, borroka latz eta adoretzu baten ondorioa baizik, gure onarpen eta gure eskuekin eraikitako guztiaren behin betiko aitortpena lortzeko.

Diktadura arrazista batean bizi garela oso argi daukagu, are gehiago estatu kolpearen ondoren, baina bidegabekeri guztiei aurre egiten tinko jarraitzen dugu. Gure lurralde eta kostaldeak oso erakargarriak dira transnazional eta atzerriko enpresa askorentzat, duten gehiegizko diru-gosea asetzeko. Udalerrien bidez gobernuak gure lurrak eman dizkie kanpotar harrapakari horiei. Arazoak ditugu, halaber, droga trafikanteekin, indarrez jabetzen baitira gure lurraldeez eta herrikideek ere euren lur-sailak saltzera behartzen dituzte.

Lurrak berreskuratzeko prozesua abian jarri dugu jada, komunitate gisa hiriguneetan besterik ez garela geratzen antzematen hasi garelako. Gure elikagaiak ekoizteko eta elikadura-subiranotasun hori lortzeko hain beharrezkoak ditugun lurrak galtzen ari





gara. Horrekin batera, biztanleriaren hazkundera ere kontuan hartu beharra dago. Horregatik, antzeman genuen gure lurrak berreskuratzearen beharra.

Prozesu honetan, dagozkigun lur horietan sartu eta ezartzeko erabaki zuzena hartu genuen, dagoenaren esku egonda ere. Alde batetik, OITk sinatutako hitzarmena dugu, 169. artikulua arabera lur tituluak aitortu zizkigunak eta horrek bermatu egiten gaitu ere nolabait. Hitzarmen honetaz baliatuz, dagozkigun eskubide hori aldarrikatzen dugu.

Enpresek badakite lur hauen jabetza gurea dela, eta antzinatek datorren jabetza-titulua ere badugula. Hori jakinda ere, egiten duten lehendabiziko gauza polizia deitzea da beti, gure izen-abizen osoak eman, eta bat-batean harrapatu eta kartzelatu egiten gaituzte. Ondoren, bertatik ateratzeko, dirutza izugarria ordaindu behar dugu. Guretzat guztiz ezinezkoa da dirutza horri aurre egitea, oso pobreak baikara. OFRANEHk prozesu horretan akonpainamendu osoa egiten du gurekin. Horregatik esaten dugu bera dela benetan laguntzen gaituen erakunde bakarra.

Hondurasen ez dugu nora jo kasu hauetan. Huts eginiko estatua da, pobreak kontuan hartzen ez dituen, herri indigenak zeharo baztertu egiten dituen. Fiskaltzak salaketaz beteta daude eta, hala ere, gobernuak ez dizkie inolako kasurik egiten. Esate baterako, bi komunitate garifunek, Triunfo de la Cruz eta Punta Piedra, Estatuaren kontrako sententziak lortu dituzte. Bi urte igaro dira jada eta oraindik ere ez da inolako erantzunik eman Estatuaren partetik, nahiz epaia nazioarteko hainbat herrialdeek inposatua izan. Hondurasen, estatuaren oinarritzko hiru botereak bakar baten esku daude. Gauzak horrela, giza eskubideen egoera oso eskasa da hemen, baita gure lurretan ere.

Bizi arrisku hori onartu egin dugu eta gure lur hauen berreskuratze prozesuan jarraituko dugula argi daukagu, nahiz eta bidean bizia eman. Epaituak eta kriminalizatuak gara uneoro, baina badakigu burutzen ari garen lana oso garrantzitsua dela. Ez dugu gizonezkoan lana gutxiesten, baina emakumeek argi daukagu ez dugula gure seme-alaben ongizatea eta bizitza hitzartuko inorekin. Emakume gisa, konpromiso handia dugu zeregin horrekin. Berreskuratze horrek bizi baldintzak hobetzea suposatzen du gure seme-alabentzat eta, arbasoek nola utzi ziguten guri, guk gure ondorengoei hala eskaintzeko beharra dugu. Borrokaren lehen lerrora eramaten dugu gure burua: batetik, guk garelako betebeharrak hau gehien



pairatzen duguna, gure semeekiko erantzukizun gehien duguna; bestetik, haien ongizate hura sekula negoziatuko ez dugulako. Helburu finko bat dugu emakume gisa: gurea dena eta dagokiguna bai ala bai defendatuko dugu, tinko. Jada ez gara antzinako emakume apal eta otzan haiek, orain emakume ahaldun eta borrokalariak gara. Eta hala defendatuko dugu gure lurraldea.

Txikitatik beti gustatu izan zait antolakuntza, beti egoten nintzen talde txikitan antolatuta gure komunitatean (Teresa). 2015eko abenduan, Juan Orlando Hernández buru zela, Estatuak sarraski bortitza bideratu zuen Irionan, urteetako etengabeko giza eskubideen urraketekin jarraituz. Bi garifuna gazte hil zituzten indar armatuek narkotrafikoaren aurkako gerra faltsuaren aitzakipean. Mutil horietako bat nire anaia zen, 19 urte zituen. Momentu hartan, OFRANEH berehala agertu zen. Gaur arte, burua gorde gabe ari da prozesu guztian zehar. Nire burua erakunde horrekin identifikatzen dut, hau da, gure interesen alde egiten duenarekin. Horixe da garifuna herriaren eguneroko borroka.

OFRANEHk lorpen handiak lortu ditu, behingoz komunitateak batzea, gure arteko sare bat sortzeko, esaterako. Gainera, ez soilik garifunon artean, baizik eta beste herri indigenekin ere. Gu ez gara gehiegikeria horiek jasan ditugun bakarrak izan, gainontzeko herriek ere horren ondorioak pairatu izan dituzte. Ibaiak suntsitu dizkiete, natura, ekosistema... dena. Enpresa transnazionalak betidanik egon izan dira herri indigenon atzetik, Hondurasen kasua adibide argia da. Bizi garen eskualdeak bilatzen dituzte eta bertara gerturatzen dituzte enpresak eta meategiak, “indigenak dira, beraz ez dute ahotsa altxatuko” argudioarekin.

Kulturarteko ele biko irakaskuntza lortutako lorpen horien adibidea ere da. Lehen, komunitateetan askok hitz egiten zuten garifuna hizkuntza. Orduan, irakasle kanpotar ugari heldu eta hizkera zatar hori ez zutela gehiago entzun nahi esan zuten eskoletan. Gaur egun, OFRANEHk egindako lanari esker, kulturarteko eskolen sorrera bideratu da eta gure ama hizkuntzaren berrindartzea ematen ari da, zorionez. Hizkuntzarekin batera, ohiturak eta janzkerak ere berriro sustatzen hasi dira. Hezkuntza ez da soilik eskoletan ematen, erakundeak berak ere irakaskuntza lana egiten ari da. Esate baterako, erizainak gaitzea lortu da berari esker, orain herrialde osoan lanean dihardutenak. Gainera, Hondurasen dugun garifuna ospitale bakarra gu geuk kudeatzen dugu, Estatuak ez baitu horretaz arduratu nahi dirudienez.



Esan bezala, erakundearen lorpenak ugariak dira. Komunitateen akonpainamendua eta, horrekin batera, lortutako Estatuaren kontrako epaia garrantzitsuenetako bat dugu. Nahiz eta Estatuak bere eginbeharra ez bete, argi dugu erakundeak bere lana primeran bete egin zuela.

Herrialde honetako talde erraldoiei aurre egin behar izaten ari gara, Vallecito komunitatearen kasuan bezala. Komunitatea oso ederra da, baina gatazka ugari izan dira bertan. Azkenean askatzea lortu zen, narkotrafikatzaileen eskuetatik kentzea. Garifunak bizi ziren han, lan egiten zuten eta eskola bat ere bazegoen. Baina erailketak eta presio jasanezinaren ondorioz, herria utzi behar izan zuten erabat ikaratuta. Ez da lan erraza narkoekin lehiatzea. Esaterako, hegazkin txiki eta helikopteroentzako ezkutuko pista bat zegoen bertan, droga paketeak deskargatzeko erabiltzen zutena.

Nik uste, Estatua bera ere ezin izango litzatekeela komunitatera sartu erakundea sartu zen bezala, narkoei esku hutsik aurre eginez, inolako armarik gabe. Emakumeak izan ginen lehen lerroan jarri izan ginenak, ausardia osoz, eta soilik gure jakinduria erabiliz lortu genuen lurraldea berreskuratzea, armarik gabe. Azkenik, lur horiek garifuna herriaren izenean dokumentatzea ere lortu genuen, behin betiko.

Egunen batean bertara joateko aukera izango bazenute, bertako ingurugiroaz gozatzeko aukera izango zenukete. Gaur, kokoak ditugu landatuta lur sail batean, baina helburua eremu hori zabaltzea eta askoz gehiago hedatzea da, bertatik koko olioak lortzeko. Juka plantazioak ere baditugu, cazabe (juka irinaz eginiko tortilak) egiteko erabiltzen ditugunak. Orain, emakumeen bilera nagusiak bertan egiten ditugu.

Erakundeak borrokarako grina hori pizteko ahalmena du, eta komunitateetatik aurrera eramateko tresnak luzatzen dizkizu. Egun osoa eman genezake erakundearen lorpenen inguruan hitz egiten, hori baita azken finean bere lana: Honduraseko herri garifunaren borroka ezagutzera ematea.

Badakigu borroka hori ez dezakegula gure etxeetatik soilik egin, horregatik guztiz beharrezkoa da kalera ateratzea, gu ikusi eta entzun gaitzaten. Herrien subiranotasuna eta giza eskubideak defendatzen saiatzearen zama zein den jakin badakigu, delitu gori bat dirudi askotan. Hala ere, eta kontuan izanda arriskupean



bizi garena, erantzukizun hori geure gain hartu dugu. Oso argi dugulako egin ezean, edo isilik egonda, gu garena gehien galtzear dugunok. Borrokarako deia hartu behar dugu.

Pertsonalki, nire buruari zerbait larri gertatzekotan, nire herri eta biztanleria osoari arren eskatu nieke borrokan tinko jarraitzeko, inolako atzera pausurik eman gabe. Ez dezatela beldurrik izan, guztiok hil egingo baikara azken finean eta, beraz, hobe da bidezkoa dena defendatzen hiltzea besoak uztarturik geratzea baino heriotza ailegatu arte. Hortaz, Honduraseko herrikide guztioi, gure anai-arreba garifuna eta indigenei, deia luzatzen diegu borrokan jarraitzeko, gerta ala gerta tinko mantentzeko. Azken auzialdietaraino heltzeko prest gaude behar izan ezker. Borroka ezin da sekula bertan behera utzi, bidea egiten jarraitu behar da.

Urteen zamek pisatu eta min egiten dute, baina, hala ere, borroka jarraitzea nahi dugu. Gure arbasoena bezalako errealitate bat nahi dugu, baketsua, lasaia. Mundu hori nahi genuke gure seme-alabentzat, bilobentzat, birbilobentzat... eta atzetik etorriko direnentzat. Indarkeriarik gabeko mundua da nahi duguna.